



Debagoieneko Mankomunitateak "**Ura eta Erreka Deba Ibarrean**" astea urrian ospatzeko asmoa dauka aurten ere eta horretarako hainbat ekitaldi prestatzen ari da. Besteak beste, parte hartzen duen herri bakoitzean antzinako argazki erakusketa bat antolatuko da, eta, horretarako, errekarekin zerikusirik daukaten antzinako argazkiak biltzea ezinbestekoa da.

Honenbestez, aipatutako argazkirik daukan **edonori** dei egiten diogu Aretxabaletako udaletxearekin harremanetan jartzeko. Horretarako, hemen agertzen diren bideak erabilgarri egongo dira:

- ARETXABALETA:

Arkupe Kultur Etxea: 10:00-13:00 eta 15:00-19:00, astelehenetik ostiralera, eta 10:00-13:00 larunbatetan.

Helbide elektronikoa: ingurumena@aretxabaleta.net; Tfnoa: 943 08 10 01 (Anabel)

Erakusketarako bidaltzen diren argazkiekin batera, honako **datu** hauek ere bidaltzea komeniko litzateke:

- **Noren argazkia:**
 - Izen-abizenak:
 - Helbidea:
 - Telefonia:
 - Helbide elektronikoa:

- **Argazkiaren datuak:**
 - Nork ateratakoa:
 - Noiz ateratakoa:
 - Tokia:
 - Ekintza, deskribapen labur bat:
 - Agertzen diren pertsonen izenak:

- **Argazkiari buruzko beste edozein datu edo informazio.**

Antzinako argazkiak bidaltzeko **epea: uztailaren 30a.**

Aretxabaletako Udalak errekarekin zerikusia duen antzinako argazkirik daukan edonor aipatutako harreman bidea erabiltzera eta argazkiak bidaltzera animatu egin nahi du.

Aretxabaletan 2014ko ekainaren 6an